

OSTALARITZAKO LAGUNTZEN AGINDUARI BURUZKO GALDEREN ERANTZUNAK

1.- Norentzako dira?

Autonomoentzako, ondasun-erkidegoentzako, sozietate zibilentzako, nortasun juridikorik gabeko unitate ekonomiko bat edo ondare bereizi bat osatzen duten pertsona fisikoen edo juridikoen taldeentzako eta ostalaritzan diharduten enpresa mikro eta txikientzako, egoitza fiskala eta soziala eta lan-zentroa Euskal Autonomia Erkidegoan izanik.

Honako hauentzako: jatetxe, taberna eta kafetegiak, establezimendu finakoak direnak, publikoari oro har irekiak, tokian bertan kontsumitzeko otorduak eta edariak eskaintzen dituztenak modu ohikoan eta profesionalean.

2.- Zein da laguntzaren zenbateko osoa?

30.450.000 euro. Horiekin, betebeharrak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzungo zaie.

3.- EJSNren batean egon behar dut?

Bai, hauetan:

- EJSN 5610: Jatetxeak eta janari-postuak.
- EJSN 5630: Edari-establezimenduak eta, gainera, dantza-aretoak edo diskotekak.

4.- Nork ezin ditu eskatu?

- Alarma-egoera deklaratu aurretik, janaria etxera banatzea edo eramateko zerbitzua jarduera nagusitzat zuten establezimenduak.
- Ekitaldietarako janari prestatuak, cateringa.
- Beste jaki-zerbitzu batzuk, salbu eta jarduera-etetearen eraginpean geratu diren zentro edo espazioetan aritzen direnak.
- Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak.

5.- Nire establezimendua eraikin batean dago, nik itxi egin behar izan dut baina nire establezimendua dagoen eraikinak irekita jarraitzen du. Eska dezaket laguntza?

Bai. Esate baterako, ostalaritzako establezimendua irekita jarraitzen duen antzoki, kiroldegi, museo edo halakoren batean badago, eska daiteke laguntza.

6.- Zer betekizun bete behar dut?

- 2020ko urriaren 25ean alarma-egoera deklaratu aurretik, jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea.
- Egoitza soziala eta fiskala eta lan-zentroa EAEn izatea.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.
- Dirulaguntzak eskuratzeko aukera galdu ez izana, zigor penal edo administratibo baten ondorioz, edo ez egotea horretarako ezgaitzen duen lege-debekuren

batean sartuta, barnean hartuta sexuagatiko diskriminazioa eragiteagatik gertatutakoak

7.- Itzuli behar dut laguntza?

Ez. Itzuli beharrik gabeko laguntza bat da. Laguntza zuzen bat da.

8.- Zer zenbateko egokituko zait?

Zenbatekoa establezimenduko edo lan-zentroko langile kopuruaren arabera izango da. Hona hemen baremoa:

- 1-3 langileko establezimenduak: 3.000 euro
- 4-10 langileko establezimenduak: 3.500 euro
- 10 langiletik gorako establezimenduak: 4.000 euro

9.- Langile guztiak autonomoak badira? Badagokit laguntza?

Bai. Autonomoak zein besteren konturako langileak hartuko dira kontuan langileen kopurua kalkulatzeko.

10.- Establezimendu bat baino gehiago badut, horietako bakoitzerako laguntza bat eska dezaket?

Bai. Enpresa batek establezimendu bat baino gehiago badu, laguntza horietako bakoitzerako eska dezake.

10.- Zein da laguntza eskatzeko epea?

Epea 15 egun baliodunekoa da. Azaroaren 19tik abenduaren 10era.

11.- Nola eta non aurkeztuko dut eskaera?

Ahal dela, elektronikoki, alegia, telematikoki. Pertsona juridiko guztiek elektronikoki aurkeztu behar dute eskaera. Pertsona fisiko bat bazara (autonomia), aurrez aurre aurkez dezakezu. Hemen:

- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren lurralde-bulegoak.
- Eusko Jaurlaritzaren herritarrei arreta emateko bulegoak (Zuzenean).
- Udalen erregistroak.
- Postaz.

12.- Aurrez aurre aurkezteko, aurretiko hitzordua eskatu behar dut?

Bai. Nahitaez eskatu behar da aurretiko hitzordua izapideak aurrez aurre egiteko edozein bulegotan.

13.- Eskaeraz gain, beste agiririk aurkeztu behar dut? Zein dira?

Bai. Honako hauek dira:

- Erantzukizunpeko adierazpena.
- Hirugarrenen erregistroko alta.
- Establezimenduko langileen Gizarte Segurantzako erregistroko zenbakia.

14.- Zer jaso behar du erantzukizunpeko adierazpenak?

- Eskatzailearen datuak: autonomia, mikroenpresa, enpresa txikia edo nortasun juridikorik gabeko taldea, establezimenduaren kokalekua eta izena,

establezimendua alta emanda dagoen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafea.

- Erakunde onuradun izateko **baldintzak betetzen** dituzula.
- Ez zaudela Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 13.2 eta 3. artikuluetan onuradun izateko aurreikusten dituen debeku-egoeretatik ezeinetan.
- Enpresa bat bazara, enpresa mikro edo txikia izateko baldintzak betetzen dituzula; hau da, 50 pertsona baino gutxiago izatea eta, deialdi honen aurreko ekitaldiko abenduaren 31n, negozio-bolumena 10 milioi eurokoa baino gehiagokoa ez izatea eta kapitalaren % 25aren edo gehiagoren partaidetza ez izatea 50 langile edo gehiago dituen eta 10 milioi euroko negozio-bolumena duen enpresa batena.
- Dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dizun zehapen penal edo administratibo irmorik ez duzula, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dizun legezko debekurik ere.
- Ez duzula inolako itzultze- edo zehatze-prozedurarik abian, ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, ez haren erakunde autonomoek emandakorik, izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasitakorik.
- Ez zaudela zigortuta dirulaguntzen eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikulua araberak.
- Zure jarduera nagusia ez dela jakiak edo edariak etxez etxe banatzea edo bezeroek establezimenduan bertan jasotzea (*delivery* eta *take away*)
- Langileei –autonomoak eta soldatapekoak– buruzko 2020ko urriaren 25eko datuak, adierazita zenbat emakumezko eta zenbat gizonezko, bai eta laguntzaren xede den establezimenduko edo lan-zentroko langile bakoitzaren Gizarte Segurantzako zenbakia ere.
- Laguntzaren xede den lan-zentroa edo establezimendua EAEn dagoela eta 2020ko urriaren 25ean alarma-egoera deklaratu baino lehen martxan zegoela.

15.- Dirulaguntza ematen badidate, badaukat betebeharririk?

Bai.

Pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak dira:

- a) Alarma-egoeran ezarritako ostalaritza-jarduera mugatzeko neurriak kentzea erabaki ondoren, enpresa-jarduerari berrekitea, eta jardueran alta emanda jarraitzea, 3.3 artikuluan adierazitako onuradun kategoria baten barruan, gutxienez lau hilabetez, jarduera horri berrekiten zaionetik.
- b) Jardueran gutxienez lau hilabetez aritzea jarraian, establezimenduaren jardueran etena egon denetik zenbatzen hasita.
- c) Laguntza ematea eta baliatzea eragin duten eskakizunak eta baldintzak betetzen jarraitzea, bai eta jarduera mantentzea ere.
- d) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik hasi eta hamar eguneko epean onuradunak dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruzko informazioa ematea.

f) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzea, eta 4/2005 Legeak Administrazioaren laguntzak kontratatzen, adosten edo jasotzen dituzten erakundeei ezartzen dizkien betebeharrak bere gain hartzea.

16.- Nire udalerrriak beste laguntza bat atera du. Eska dezaket dirulaguntza hau ematen badidate?

Bai. Bateragarria da beste administrazio publikoek eta/edo erakunde pribatuak emandako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek.

17.- Banaketa-enpresek eska dezakete laguntza hau?

Ez. Salbuespenezko neurriak direla-eta itxi behar izan duten eta jarduera eten duten establezimenduek bakarrik eska dezakete.